



HONDARRIBIKO UDALA

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

1949an Eusko Ikaskuntza Erakundeak eta Euskaltzaleen Biltzarrak abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna izendatu zuten egun hartatik, guztiontzako ospakizun eguna izateaz gain, gure hizkuntzarekiko dugun konpromisoa berresteko eguna ere bada.

Euskara indartzea eta normalizatzea herritarrok eta herri erakundeok adostasun zabalenean oinarritutako konpromisoaren eskutik dator, eta gure hizkuntza gizarte-eremu guztietan erabiliz gauzatzen da. Horretarako ditugu, besteak beste, 1982an Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Legea, euskal gizarteak euskararen eta bizikidetzaren alde duen konpromiso irmoaren isla nagusia, eta 1992an Hondarribiko Udalak onartutako Euskararen Ordenantza, bi hizkuntza ofizialen berdintasun soziala lortzeko helburuarekin euskarari lehentasunezko tratamendu berezitua ematen diona.

Herritarrei eta herri erakundeei dagokie legeok dituzten ahalmenak garatzea, euskarak erabilera eskasa duen esparruetan handituz, erabiltzen den esparruetan sendotuz, eta hiztun berrien beharretara egokituz. Azken finean, euskararen erabilera bultzatu behar da bizitzako esparru guztietan. Hala nahi duen orok euskaraz bizitzeko parada izan dezan.

Horretarako, Euskara Biziberritzeko Plangintza Nagusi berria onartu du Hondarribiko Udalak 2011n, udal zerbitzuetan herritarren arretarako hizkuntza eta laneko hizkuntza izan dadin sustatzeko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2013an onartu du, udalerrian gizarte erabilera areagotzeko erabakiak hartuko ditu eta euskalduntzea nahiz alfabetatzea lantzeko programarekin jarraituko du. Aurten bereziki Udalaren interneteko domeinua **.EUS domeinu** modura erregistratu, aktibatu eta ikusgarri izateko pausoak eman ditu, euskara eta euskal kulturaren komunitatea kohesionatzeko axola handiko tresna baita. Era berean, gonbidatu egiten ditu herritarrok zein bertako elkarte eta enpresak beren domeinuak **.EUS domeinura** bihurtzeko.

Hauek guztiak ezinbestekoak dira gero eta gizarte elkartuagoa eta orekatuagoa egiteko. Eta hala adierazten dugu 2014ko Euskararen Nazioarteko Egunean Hondarribiko Udaleko EAJ, Bildu, PSE, Hamaikabat eta PP udal talde politikoei.

Hondarribian, 2014ko abenduaren 3an